

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak Euskal Herriko lurraldea antolatzeko egiterapideak definitu eta araupetzea du xede, bai eta Herri-Administrazioei euren aginpidetzez baliatuz garatzea egokitzen zaizkien lurraldean eragina duten egintzak koordinatzen direla bermatzeko beharrezko diren irizpideak eta jardunbideak ezartzea ere.

Euskal Autonomi Elkarteko lurraldea antolatzekotan, hiru egiterapide eratzen ditu aipatutako Legeak: Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak eta Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planak.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak lurraldearen eta hiri antolaketarako gainerako egiterapideak gauzatzeko abiapuntu dira, eta honako hauek dira beren egitekoak:

- a) jarduera ekonomiko eta sozialak lurraldean kokatzeko prozesuak bideratu eta arautzen dituzten irizpide eta arauak egitea, Euskadirako guztiontzako interesgarri den beharrezko lurraldearen oreka bermatzeko eta aproposak diren lurraldearen espazioetara jarduera ekonomikoa erakartzeko egoki diren baldintzak eratu ere egiten direla bermatzeko;
- b) lurralde eta espazioak antolatu eta horien erabilpenari dagokienez, erreferentzia esparrua eratzea, Euskal Autonomi Elkartekoaren lurraldean jardun behar duten Herri-Administrazio desberdinen arloko politikak gauzatu eta burutzeko, bai eta Foru Aldundien eta Udalen hirigintzako jarduerarako ere, horien guztien arteko koordinazio eta bateragarritasun egokia bermatzekotan eta
- c) Estatuarekin edo beste Elkarte Autonomo batzuekin elkarlanean jardutea eskatzen duten lurralde ekintzak ohartematea. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak gauzatu eta izapidetzeko 4/1990 Legean ohartemandako jardunbideari jarraitu zaio.

Artezpideek duten lehentasunezko helburua herritar guztion garapena eta ongizatea da, espazio ekonomikoen nazioarteko inguru berrian ekoizpenerako lurralde lehiakorra lortzea ahaleginduz, inbertsio berritzaileen erakarpenagatik lehian; lurralde erakargarria herritarreneguneroko bizimodurako eta lurralde solidarioa lurralde ereduaren eraginen banaketari dagokionez herritarren eta gure Autonomi Elkarteko atal bereiztuengan.

Artezpideetan ohartemandako lurralde eredia baliabide naturalen balioarekiko errespetuz hartu da, eragin negatiboak ekiditeko jokabide tradizionala, ingurune naturalaren gaineko jardunbide positiboko eragiketak garatzeko jokabide handinahiarekin osatu nahiaz.

Artezpide hauek erreferentziagarri eta malgula den egiterapide dira, Lurraldearen Antolamendurako Zatiko eta Arloko Planen bidez garatu behar dena. Izan ere, Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak protagonismo berezia hartzera deituta daude, horien gain lurraldeko eremu desberdinen etorkizuneko egituraketarako zehaztapenetako asko daudelako.

Artezpideak proposamen-bildumak osatzen ditu, osotasunean, ikuspuntu orokor eta harremanetuarekin sortuak diren gai desberdinei buruzkoak, lurralde ereduko zenbait hipotesirekin bat datozenak, alegia.

Artezpideek zenbait jokabide ohartematen dituzte Eukadi Europan sar dadin, Euskal Herria Eremu Atlantiko Europako beste espazio dinamiko batzuekin integratzeko prozesuetan muin estrategiko gisa eratzeko bokazioarekin identifikatuta eta jarduerarik nagusienak adierazita Euskal Herriak Europako benetako errotula eratu dezala lortzeko. Ingurune fisikoaren antolaketari dagokionez, Artezpideen abiapuntua Euskadiko Ingurune Fisikoak dituen arazoei eta eskaintzen dituen aukerari arreta berezia ematea da. Ingurugiroak dituen balio eta berezitasunek funtsezko elementua eratu dute, lurralde erdua egituratzeko eta berme dira herritarren bizi-kalitaterako.

Bilbo Metropolitarra, Donostia-San Sebastián eta Vitoria-Gasteizek, jardutze aldetik duten tamaina eta geografiaren aldetik duten kokapen estrategikoagatik, egiteko egituratzaile positiboa dute oso bakoitzari dagokion Lurralde Historikoengan, era osagarrian jo behar direla dituzten hiri eta horniketara jarduerak. Hiriburuen Euskal Sistema Polinuklearreko hiru hiriok, elkar hartuta, Autonomi Elkarteko lurraldea gidatu behar dute ekonomia, kultura eta berriaz hiri ikuspuntutik.

Artezpideek, tamaina ertaineko hirien sarea sustatzeko helburua hartu dute beren gain, Lurraldeko Jardutze-Eremuen multzoa egoki egituratzeko gai izan behar dutenak. Jardutze-Eremuek “piezak” osatzen dituztela jotzen da, Autonomi Elkartearen kontestu orokorrean lurraldearen orekarako izan daitezkeen jokabideak ezartzeko egokia den eskala dutenak.

Baserrialdeek, kontutan hartuta Euskal Herriko lurraldearen tamaina txikia eta demografiaren aldetiko dentsitate handia, balio estrategikoa hartzen dute, produktu gordinera jarduera primarioak ekartzen dutena gaintzen duena. Artezpideetatik funtsezkotzat jotzen da jokabide bat arautzea baserrialdeak balioan jartzeko, duten idiosinkrasia mantenduz eta lana sortzeko eta garapen euskorrerako baldintza proposak eratuz.

Azpiegiturei dagokienez, adierazi beharra dago garraio sistema E.A.E.ko guneak kanpotik eta barrutik lotzeko aukerak hobetzeko diseinatu dela. Artezpideek jardunean dauden plan eta proiektu handiak hartzen dituzte beren gain eta egintza osagarri zenbait proposatzen da hirien euskal sistema Europan sartzeko, Euskadiko hiru hiriburuak elkarren artean lotzeko, tamaina ertaineko hirien sarea sartzeko, Jardutze-Eremu desberdinen barruko lurralde egitura hobetzeko eta lurraldean oreka eta osagarritasun handiagoa sustatzeko. Ekipamenduen Sistema antolatzea baliabide indartsua da lurralde erdua eratzeko estrategien zerbitzurako, lurraldearen funtzionalitasuna “moldatu” eta egituratzen baitu, Artezpideek oinarritzeko den abiapuntua eskaintzen dutela.

Azkenik, adierazi behar da LAAetan honako lotze indarreko zehaztapenak ezartzen direla, udal planeamendurako Zuzenean Aplikatzekoak direla:

1. Azaleko uren tratamendua. Berriaz ubideak babesteko behin-behineko zenbait neurri, kasuan kasuko LAA onartu arte.
2. Hirigarri ez den Lurrean, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenari atxikita ez dagoen Familia bakarreko edo bi Familiako Etxebizitzaren erabilpena debekatzea.
3. Udal Planeamenduak Egoitzarako Lurrean egiten duen eskaintzan goi-mugak zenbatzea, behin-behineko, Lurraldearen Antolamendurako kasuan kasuko Zatik Planak onartu arte. Era berean, udalerrri txiki polinuklearretan badauden etxebizitzena baino handiagoa izango ez den etxebizitzaren gehikuntza ahalbideratuko da.

4. Udal planeamenduak ustiapen-jarduerek eragiten dituzten eremuak muga ditzan beharrezana.LAAetako gainerako zehaztapenak Lurraldearen Antolamendurako Zatiko eta Arloko Planak idazteko erreferentziak dira.

Lotze indarreko alde hauez gain, Dekretuaren ataletan erreferentziak ere jasotzen dira, hain zuzen, udalerrientzako planeamendurako euren egiterapideak gauzatzean interes handiagoa izan dezaketenak.Azkenik adierazi daiteke Artezpideak idazteko eta izapidetzeko hartu den ardatza Autonomi Elkarteko Lurralde Eredua definitzearekin lotuta dauden gai handietan adostasuna lortzean iradoki dela, alegia, eraginduta dauden administrazio desberdin eta erakunde publiko eta pribatuen artean, bai eta euskal herritarretako gehiengoaren artean ere.

Ondorioz, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1997ko otsailaren 11n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

1. atala.- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onestea.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen arabera, Dekretu honen Eraskinean jasotzen diren Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak behin betiko onartu dira.

2. atala.- Aplikazio esparrua.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak Euskal Autonomi Elkarteko lurralde osoan dira aplikagarri.

3. atala.- Eratzeko agiriak.

Hona hemen Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak eratzen dituzten agiriak:Idatzizko Agiriak:

#### LURRALDE EREDUAREN OINARRIAK

1. Lurraldea eta Gizarte Neoindustrialia Euskadin.
2. Bizilagunak eta Lurraldea.
3. Ekonomia eta Lurraldea.
4. Erronka Nagusienak E.A.E.ko Lurraldearen Antolamenduan.
5. LAA idazteko hartu den planteamendu disziplinarra.
6. Euskadi Europako Espazio Handien Kontestuan.

#### LAAen LURRALDE EREDUA

7. LAAen Lurralde Eredua.

Ingurune Fisikoa Lurralde Ereduaren oinarri eta euskarri.

8. Ingurune Fisikoaren antolaketa.
9. Lurralde Ereduaren eraginak Lurrari buruzko Politikan.
10. Bigarren Etxebizitza eta Baliabide Turistikoen antolaketa.
11. Aisialdirako Eremuen Sistema eta Lurraltera sartzeko Guneak.
12. Etxebizitzaren beharrianak eta Egoitzarako Lur Berriaren Eskaintza Zenbatzea.

Lurralde Ereduaren Azpiegiturak

13. Garraio, Komunikabide eta Energiaren Azpiegiturak.
14. Ura.
15. Hondakin Solidoak.

#### LURRALDE EKIMENAK ONGIZATE ETA BERRIKUNTZARAKO

16. Hiri Berrikuntzarako Jokabideak.
17. Ondare Kulturalaren Antolaketa.
18. Ekipamenduak Lurraldearen ikuspuntuan.

#### LAA APLIKATZEKO GAKO ETA ERREFERENTZIAK

Lurralde Planeamendua Garatzeko Esparruak

19. Udal Planeamenduen bateragarritasuna.
20. Jardutze-Eremuen Mugaketa.

Lurralde Ereduaren Erreferentziak

21. Lurralde Eredurako Erreferentzia Eraskinak.

LAA aplikatzeko Arauak

22. LAA aplikatzeko Arauak.

#### Agiri Grafikaoak

Agiri honetan jasotako eta berriaz aipatutako kartografiak osatzen ditu.

4. atala.- Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak idazteko esparruak.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 6.5 atalaren eta Artezpideei dagozkien testuan Jardutze-Eremu bakoitzerako adierazten den udal osaketaren arabera, honako esparru hauek ezarri dira Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak idazteko:

1. Balmaseda-Zallako Jardutze-Eremua.
2. Beasain-Zumarragako Jardutze-Eremua.
3. Bilbo Metropolitarra.
4. Donostia-San Sebastiango Jardutze-Eremua
5. Durangoko Jardutze-Eremua.
6. Eibarko Jardutze-Eremua.
7. Gernika-Markinako Jardutze-Eremua.
8. Igorreko Jardutze-Eremua.

9. Laguardiako Jardutze-Eremua.
10. Llodioko Jardutze-Eremua.
11. Arrasate-Bergarako Jardutze-Eremua.
12. Mungiako Jardutze-Eremua.
13. Tolosako Jardutze-Eremua.
14. Erdialdeko Arabako Jardutze-Eremua.
15. Zarautz-Azpeitiako Jardutze-Eremua.

5. atala.- Etxebizitzetarako zenbatekoa.

1. Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planek egoitzarako lurren eskaintza zenbatu beharko dute, kasuan kasuko Jardute-Eremuaren esparruan sartuta dauden udalerrri bakoitzari dagokiona.
2. Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planek bigarren etxebizitzetarako diren lurren eskaintzaren goi-mugak finkatu beharko dituzte.

6.atala.- Udal planeamenduen bateragarritasuna.

1. Bilbo Metropolitarrako Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak, Etxebarri, Alonsotegui, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bilbao, Derio, Erandio, Galdakao, Getxo, Leioa, Loiu, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Valle de Trapaga eta Zamudio udalerrietako planeamendua bateratu beharko du. 2. Donostia-San Sebastiango Jardutze-Eremurako Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak, Donostia-San Sebastian, Pasaia, Renteria, Lezo, Oiartzun, Hernani eta Astigarraga udalerrietako planeamendua bateratu beharko du.

7. atala.- Etxebizitzetarako zenbatzea udal planeamenduan.

1. Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak onartu arte, etxebizitzetarako ahalmena zenbatzeko, Artezpideei dagokien agiriaren 1. Eraskinean zehazten diren irizpide, adierazle eta koefizientei jarraituko die udal planeamenduak.
2. Era berean, aurreko azpiatalean aipatutako aldibaterakotasunarekin, populazio gutxiko eta hiri egitura polinuklearra edo egoitzarako zenbait biztanleria gunetako udalerrietan, badauden etxebizitzena baino handiagoa izango ez den etxebizitzaren gehikuntza ahalbideratuko da gune horietako bakoitzean.

8. atala.- Jarduera Ekonomikoetarako lurraren zenbatzea.

Lurraldearen Antolamendurako kasuan kasuko Zatiko Planak onartu arte, udal planeamenduak Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak jarduera ekonomikoetarako den lurraren zenbatekoari ezartzen ari dizkion Irizpideak bete beharko ditu.

9. atala.- Azaleko Uren Tratamendua.

1. Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana idatziko da Euskal Autonomi Elkarteko Ibai-ertzak eta Erreka-ertzak antolatzeko.
2. Euskal Autonomi Elkarteko Ibai ertzak eta Erreka-ertzak antolatzen dituen Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plana behin betiko onetsi arte, udal planeamenduak Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak horretarako erabiltzen dituen irizpideak oharteman beharko ditu.

10. atala.- Nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenari atxikita ez dagoen familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza isolatuaren erabilpena.

1. Hirigarri ez den lurrian debekatuta dago familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza isolatuaren erabilpena, nekazaritza eta abeltzaintzaren baliabideak ustiatzeari atxikita daudela, fidagarritasunez, egiaztatzen den kasuetan izan ezik.
2. Familia bakarreko edo bi familiako etxebizitza isolatuaren eskaria baserrialdean, erabilpen hori jasotzeko hirigintzaren aldetik sailkatuta eta kalifikatuta dauden baserrigune edo eremuetara jo behar da.

11. atala.- Erausketa-Jarduerak.

Udal planeamenduak erausketa-jarduerak gauzatzeak eragiten dituen eremuen mugaketa jaso beharko du, bai eta badauden baimenak hedatzearen ondorioz erabilpen horietarako izan daitezkeenena ere.

12. atala.- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen Berrikusketa.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak indarrean jartzen direnetik zortzi urte betetzean, Eusko Jaurlaritzak horiek berrikusteari ekin behar zaion egiaztatuko du. Halere ondoan aipatzen diren egoeretakoren bat izanez gero, beste edozein momentutan ere berrikus daitezke, lehenago zein geroago:

- a) Datozen gertakariak LAAetan hartutako hipotesiak aldatzen badituzte, gunearen oinarritzko tamaina, erabileraren dinamika edo etxebizitzaren merkatuari dagozkienetan, antolamendurako ezarritako irizpide orokorrak aldarazten badituzte.
- b) LAAetako zehaztapenetan aldaketa zehatzak izapidetu behar badira, lurraldearen egitura orokorrean eragiten dituzten aldaketak dakartzatenak.
- c) LAA garatzeak bere helburuak zabaltzeko beharrezko adierazten badu, hasieran aurrikusi ez diren antolatzeko eredu beraren ondorengo garapenez.
- d) Elkarreaz gaindiko Arloko Planen bat onartzeak Autonomi Elkarrearen barruan zehaztapenak ezartzen baditu, eta horiek Lurralde Eredua aldarazten badute.
- e) Antzeko garrantzi edo izaerako beste gertakari batzuek hala justifikatzen badute, LAA hauen lurralde ereduaren irizpen zehazgarriei eragiten dietelako, eta Eusko Jaurlaritzak arrazoiztuz hala erabakitzen badu.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Bi urtetik bi urtera, Eusko Jaurlaritzak “Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen egoera” izeneko Memoria egingo du. Horretan Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen aplikazio-

---

maila, lurralde eta udal planeamenduan duen eragina eta antzemandako ezdoiketak ekiditeko ekin beharreko egintzak aztertuko dira.

Memoria hori idazteko, Euskal Autonomi Elkarteko udalerriek eta aldikotasun bereborean txosten bat aurkeztu beharko dute Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailean, kasuan kasuko udalerrian indarreango planeamendua eta Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan horriburuz ezarritakoaren eta ordurarte lurraldearen antolamendurako onartutako gainerako egiterabideetan ezarritakoaren artean dagoen lotura-mailari buruzkoa, hain zuzen.Bigarrena.

1. Aginpidedun diren Administrazioek Lurraldearen Antolamendurako Zatiko Planak egitea sustatuko dute, Artezpide hauetakoen osagarritzako hirigintza eta lurralde irizpideak ekar ditzaten, udal esparruko planen garapen egokiagoa ahalbidera dezatenak eta Lurraldearen Antolamendurako Arloko Planak egitean lurraldearekiko koherentzia handiagoa berma dezatenak.
2. Euskal Autonomi Elkarteko lurraldean eragina duen arloko esparruetan aginpidedun den edozein Administraziook idatzi ahal izango ditu Lurraldearen Antolamendurako Arloko Plan berriak, Artezpide hauetan berriaz adierazitakoez gain, norbere aginpidetza-esparruan eta Artezpide hauetan jasotzen diren lurraldearen antolamendurako zehaztapenak eta irizpideak betez.
3. Lurraldearen Antolamendurako Zatiko eta Arloko Plan guztiek, kasuan kasuko oinarritzako agiriak ez ezik agiri osagarria ere jaso beharko dute, hain zuzen, eraginpeko udalerrri bakoitzeko planeamendua aldatzen deneko puntu zehatzak adieraziko dituena.

Hirugarrena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunean jarriko dira indarrean Euskal Autonomi Elkarteko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko otsailaren 11an.

1.- Lurralde Antolamendurako Artezpideak garrantzi handi-handiko plangintza-tresna direlarik EA Eren geroagoko garapenarentzat lehiakortasun eta eramangarritasun aldetik, halatan bai barnekoherentzia handiagoa eta bai Europako garapen-ardatzetan integrazio hobea erdiesteko.

“Eusko Legebiltzarrak bere babesaren agertzen die Lurralde Antolamendurako Artezpideei eta Jaurlaritzari eskatzen dio gogotsu bultza dezala Lurralde Antolamendurako Artezpideen guztizko garapena eta, garapen horrekin, berma dezala maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoan, bildutako legegintza-manuak betetzea”.

2.- Lurraldearen zatiko planek Lurralde Antolamendurako Artezpideak garatu beharra daukate artezpide horiek bitarteko eskalako lurralde-antolamenduari ekiteko ezarri dituzten hamabost jardutze-eremua, egitura horietako bakoitzerako zehaztuz artezpideek ezartzen dituzten antolamendu-irizpide berariazkoak. Jabetuak gaudelarik lanabes horiek, berehalaxeko garapena izango dutenek, zein garrantzi handia duten.

“Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, eskualde-egitura bakoitzean inplikaturiko gainerako administrazioekin batera eta hainbat lasterren, tramita ditzala lurraldearen zatiko plan guztiak, lehenetsia emanaz geroagoko beste batzuk garatzeko onetsi beharrekoak direnei”.

3.- Eusko Jaurlaritzako sailek prestatzen dituzten lurralde-eragineko planak, bai eta lurraldeetako foru-organismoek prestatu eta onesten dituztenak ere, lurraldearen arloko planak izango dira izaez.

“Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, gainerako administrazio eskudunekin batean, lau hilabeteko epean izenda daitezela gobernu-sailen eta foru-organoen politika guztien funtzioak betetzeko beharrezkoak diren lurraldearen arloko planak. Halaber, Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio orobat plan horien idazketa eta onespen prozedura bizkorragotu dezala, halatan hasiera-hasieratik bermatu ahal izateko lurraldearen arloko planak behar bezala txertatzea Lurralde Antolamendurako Artezpideek zehaztutako lurralde-esparruan eta lurraldearen zatiko planak LALeko 17.1 eta 17.5 artikuluetan manatutakoari jarraiki”.

4.- Lurralde Antolamendurako Artezpideak dira gainerako antolamendu-tresnak formulatzeko erreferentzia esparru nagusia, bai lurraldearen zatiko eta arloko planak eta bai lurzorua-araubideari buruzko legedian aurreikusitako antolamendu-planak formulatzeko; nahitaezko erreferentzia dira, beraz, lurralde-antolamenduarekin eta hirigintzarekin zerikusia duen guztirako. Hori dela eta, Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio artezpide hauen zabalkunderako beharrezkotzat jotzen dituen mekanismo guztiak antola ditzala, horien bitartez administrazioei, erakunde publiko eta pribatuei, elkarte profesionalei eta gai honetan interesaturik dauden talde eta pertsona guztiei artezpideon berri emateko.

“Legebiltzarrak eskatzen du berebat lurralde-antolamendu kontzeptuaren zabalkundea egin dezala, kontzeptu hori beharrezko disziplina baita lurzorua erabilerako politika sektorial guztiak koordinatzeko eta lurraldea modu eramangarri eta orekatuan garatzeko, kontuan izanik eginkizun horren aitzindaritzaren kontrola administrazio publikoei dagokiela”.

5.- Partehartzea lurralde-antolamendu eta hirigintzako edozein plan formulatu eta prestatzeari hertsiki lotuta dagoen elementua da. Gai hauekin zerikusia duten prozedura guztiek aurreikusten dituzte parte hartzeko bideak iradokizun edo alegazio gisa. Bestalde, sustatu beharreko demokrazi



ariketa da partehartzea onarpen zabala izango duten plan eta proiektuz hornitu ahal izan gaitzen, are gehiago lurraldea zertarako erabiliko dugun erabakitzeke garaian, lurraldean oinarrituak behar baitute izan ezinbestez gure ekintza guztiek: “Ildo horretan, Legebiltzar honek Jaurlaritzari eskatzen dio susta ditzala parte hartzeko prozesu egiazko eta eraginkorrak, bai Administrazio publikoaren aldetik eta bai gizarte zibilaren aldetik, aintzat harturik positiboa dela herritarrek horrela parte hartzea planak formulatzen eta plan horien edukiak finkatzen”.

6.- Cork-eko “Baserialde Bizia” Adierazpenean, Baserialdearen Garapenari buruzko Europar Biltzarrean onetsitakoan, esaten den bezala, eta halaber baserialdearen garapenari buruz Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak eztabaidatu eta onetsitako zenbait adierazpenetan esaten den bezala, baserialdeek hiru funtzio betetzen dituzte (ekonomikoa, ekologikoa eta sozio-kulturala), erakundeek bultzatu behar dituztenak hirurak ere. Horregatik:

“Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, baserialdeari eragiten dioten LAAek, lurraldearen zatiko planek eta lurraldearen arloko planek finkaturiko orientabideei jarraituz, behar diren neurriak har ditzala baserialdeen garapen eramangarria sustatzeko, baserialdetik alde egiteko joera iraultzeko, enplegua sustatzeko, bizi-kalitatea eta aukera-berdintasuna hobetzeko, bai eta baserialdeetan hirietako bizi-baldintzen antzekoak izateko ere, denik eta begirunerik handiena izanez natura zaintzeari eta baserialdeetako biztanleen kultur identitateari dagokienez.

Eusko Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio 1992-1996 urteetako Euskal Baserialdeko Plangintzan aurreikusita dauden babestutako naturaguneak izendatzeko prozesuak bizkorragotu ditzala”.

7.- Euskal Autonomi Elkarteak presio handia jasan behar izan du hirien hazkundera dela-eta industrializazio garaian.

Funtzionaltasun eta ingurugiro ikuspegitik bateraezinak diren erabilerak eta Autonomi Elkarteak jasandako industri gainbehera batera etorri izanak hiri-hondatzeak eta disfuntzionaltasun larriak sortu ditu. Horregatik, “Eusko Legebiltzar honek Exekutiboari eskatzen dio eraberritze-ekimenak bultzatzea industriaren gainbeherak eta hiri-hondatzeak gehien erasandako aldeetan arreta jarritz, hala hiriek garapen gozoagoa izan dezaten eta ekonomia, garapena eta funtsean herritarren bizi-kalitatea indartuko duten proposamen eta iharduera berriak sor daitezen”.